

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA

Euskara Zerbitzua

Iragarkia

Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko abuztuaren 31n egindako bilkuran, 2021-2022 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu ditu.

2021-2022 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarriak.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak, Donostian euskaren erabilera normalizatzeko tresna publikoa izanik, bere helburuen eta egitekoen barne hartzen du donostiarren euskaldun-zea sustatzea. Horiek horrela, deialdi honen bidez, Euskara Zerbitzuak euskara ikasteko eta hobetzeko dirulaguntzak emateko arauak finkatu ditu.

I. XEDEA

1. artikulua.

2021-2022 ikasturtean euskara ikasten edo hobetzen dihardutenei dirulaguntza publikoak ematea da oinarri hauen xedea.

2. artikulua. Eskumena duen organoa.

Deialdia Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko du eta deialdiaren zabalpena eta argitalpena bermatuko ditu.

3. artikulua. Araudia.

Laguntzen emakidak nahiz dirulaguntza emailearen eta onuradunen arteko lege harremanak oinarri hauen arabera eta dirulaguntzak ematerakoan indarrean dagoen araudiaren arabera zedatuko dira.

Oinarri hauetan aintzat hartu ez diren kontu guztietarako, dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak eta 887/2006 Errege Dekretuaz onartutako Arautegiak diotena hartuko dira kontuan.

II. ESKATZAILEAK

4. artikulua.

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete behar dituzte:

– 16 urte betetzea ikastaroa hasten den urtean.

– Donostian erroldatuta egotea edota egoitza soziala Donostian duen enpresa edo entitate batean lan egitea, oinarri hauetan 6. artikuluan esaten denaren arabera.

Azaroaren 17an onaturiko dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan xedaturiko baldintzetako batean dauden pertsonak edo erakundeek ezingo dituzte jaso dirulaguntza hauek.

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Servicio de Euskera

Anuncio

La Junta de Gobierno Municipal de Donostia/San Sebastián, en la sesión celebrada el 31 de agosto de 2021, ha aprobado las bases reguladoras del procedimiento para otorgar subvenciones públicas por el aprendizaje del euskara durante el curso 2021-2022.

Bases reguladoras del procedimiento para otorgar subvenciones públicas por el aprendizaje del euskara durante el curso 2021-2022.

El Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, como instrumento público para la normalización del uso del euskera en la ciudad, en el marco de sus objetivos y funciones, promueve la euskaldunización de los donostiarres. Así, el Servicio de Euskera establece las normas reguladoras para conceder subvenciones para el aprendizaje y perfeccionamiento del idioma.

I. OBJETO

Artículo 1.

Es objeto de las presentes bases la regulación de las subvenciones públicas anuales para el aprendizaje y perfeccionamiento del euskera durante el curso 2021-2022.

Artículo 2. Órgano competente.

Esta convocatoria será aprobada por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián y deberá garantizarse su difusión y publicidad.

Artículo 3. Normativa aplicable.

La concesión de las ayudas y la relación jurídica entre el otorgante y la persona beneficiaria se regirá por las presentes bases y demás normativa vigente en el momento de su concesión.

En todo lo no previsto en las presentes bases se aplicará la Ley 38/2003 General de Subvenciones y su Reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006.

II. SOLICITANTES

Artículo 4.

Podrán optar a las subvenciones, las personas que cumplan los siguientes requisitos:

– Cumplir 16 años dentro del año en el que comienza el curso.

– Estar empadronado/a en San Sebastián o estar trabajando en alguna entidad o empresa que tenga su sede social en la ciudad, conforme a lo recogido en el artículo 6 de estas Bases.

No podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las personas o entidades en quienes concurren algunas de las circunstancias previstas en el art. 13.2 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Norbanakoek edo erakundeek ezingo dute dirulaguntzarik jaso baldin eta Donostiako Udalarekin edo haren mendeko erakunde autonomoekin nahiz entitateekin dituzten zorrengatik behartze bidez ordainarazteko prozeduretan hasita badaude, ezta ere Udalarekiko zerga obligazioak ordaintzeke izanez gero, hariak eta zor horiek, benetan, ordaindu eta kitatzen dituzten arte. Salbuespen bakarra izango da zorrak geroratuta edo epeka ordaintzeko izatea edo halakoan exekuzioa bertan behera utzita egotea.

5. artikulua. Lagundu daitezkeen ikastaroak.

HABEk homologatutako euskaltegiak eta zentroek emandako euskalduntzeko ikastaroak lagundu ahal izango dira, 2021eko urriaren 1etik 2022ko irailaren 30a bitartean antolatutakoak.

a) HABEk homologatutako ikastaroak (2005eko uztailaren 27ko Ebazpena):

– Modulazio ezberdineko ikastaroak (2/10, 2/8...).

– Barnetegiak (ez da laguntzarik emango egoitza gastueta-rako).

– Autoikaskuntza ikastaroak.

b) Udako ikastaroak, betiere HABEk homologatutakoak.

6. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko baldintzak.

– Eskabide-orria behar bezala beteta eta nahitaezko dokumentazioa dagokion epeen barruan aurkeztea.

– Ikastaroa amaitzerako matrikula ordainduta izatea. Ordainketaren gaineko informazioa dagokion euskaltegiak egiaztatuko du ikastaro amaierako ebaluazio txostenean.

– 2015eko urriaren 1ean indarrean sartu zen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumak jasotzen dituen azpimailetako bat gaintzea gutxienez.

Curriculumaren araberako azpimailak: A1A0/A1A1/A2A1/A2A2/B1A2/B1B1/B2B1/B2B2/C1B2/C1C1 eta C2C2.

– Euskarazko ikastaroan gutxienez % 75eko asistentzia egiaztatzea; horretarako, ikasleak ikastaroan izan duen hasiera eta amaiera data hartuko dira kontuan, hau da, ikasleak noiz hasi duen ikastaroa eta noiz bukatu duen. Asistentzian egindako faltak behar bezala zuritu beharko dira dagokion euskaltegian.

– Eskatzaileek Donostian egoiliar gisa errolatuta egon behar dute.

– Erroldatu gabeko eskatzaileen kasuan, gutxienez sei hilabetez egon behar dute lanean, Donostiako zerbitzu enpresa edo entitate batean, diruz laguntzea eskatzen den ikastaroa amaitzen den datarako (azken eguna barne).

– Azpimaila edo euskaltegia aldatzeko, aurretiaz Donostia-ko Udaleko Euskara Zerbitzuari idatziz jakinarazi beharko zaio.

III. ESKABIDEAK

7. artikulua. Eskabideak aurkezteko epeak eta eskabide orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Dirulaguntza jasotzeko, eskatzaileak euskaltegian matrikula egin ondoren, dirulaguntza eskaera eta dokumentazioa aurkeztu beharko ditu, hauetako moduren batean:

– Online, www.donostiaeuskaraz.eus eta www.donostia.eus webguneen bidez.

– Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren bulegoetan (Konstituzio plaza, 2-behea), 9:00etatik 14:00etara bitartean.

– UdallInfo: Herritarren arreta bulegoetan.

Tampoco podrán concederse subvenciones a los particulares o entidades que se hallen incurso en procedimientos de cobro por vía de apremio por deudas contraídas con el Ayuntamiento de San Sebastián u organismos autónomos o entidades, ni aquellos que no se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias con el Ayuntamiento hasta que dichas deudas sean efectivamente satisfechas y saldadas o cumplidas, salvo que las mismas se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.

Artículo 5. Cursos que podrán ser subvencionados.

Se subvencionarán los cursos de euskaldunización impartidos por euskaltegis o centros homologados por HABE y realizados entre el 1 de octubre de 2021 y el 30 de septiembre de 2022.

a) Cursos homologados por HABE (Resolución del 27 de julio de 2005):

– Cursos de distintas modulaciones (2/10, 2/8...).

– Cursos de internado (no se darán ayudas para gastos de estancia).

– Cursos de autoaprendizaje.

b) Cursos de verano, siempre y cuando sean homologados por HABE.

Artículo 6. Requisitos para obtener la subvención.

– Presentar el impreso de solicitud cumplimentado junto con la debida documentación dentro de los plazos correspondientes.

– Haber abonado el importe de la matrícula para cuando finalice el curso. El euskaltegi correspondiente confirmará dicho abono en el informe de valoración del final del curso.

– Superar como mínimo un subnivel de los recogidos en el Curriculum Básico de Euskaldunización de Adultos que está en vigor desde el 1 de octubre de 2015.

Subniveles del curriculum: A1A0/A1A1/A2A1/A2A2/B1A2/B1B1/B2B1/B2B2/C1B2/C1C1 eta C2C2.

– La persona solicitante deberá tener una asistencia mínima del 75 %; para ello se tendrá en cuenta las fechas del curso correspondiente a la persona solicitante, es decir, la fecha en la que el/la alumno/a ha comenzado y finalizado el curso. Las faltas de asistencia deberán ser justificadas debidamente en el euskaltegi correspondiente.

– Las personas solicitantes deberán estar empadronadas en Donostia/San Sebastián.

– Las personas no empadronadas deberán estar trabajando como mínimo durante seis meses en alguna entidad o empresa de servicios de San Sebastián para cuando finalicen el curso por el que han solicitado la subvención (incluido último día).

– Para cambiar de subnivel o euskaltegi, será necesaria la notificación previa por escrito al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián.

III. SOLICITUDES

Artículo 7. Plazos para presentar las solicitudes y documentación a presentar junto con la solicitud.

Para recibir las ayudas, la persona interesada deberá matricularse en un euskaltegi, y una vez matriculada deberá presentar la documentación en cualquiera de estas formas:

– On line, en las páginas www.donostiaeuskaraz.eus y www.donostia.eus.

– Oficinas del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián (Plaza de la Constitución 2 bajo), de 9:00 a 14:00.

– UdallInfo: Oficinas de atención ciudadana.

Eskabideak aurkezteko epeak eta eskabide orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, eranskin hauetan jasotzen denaren arabera egingo da:

– A eranskina. Neguko ikastaroak: 2021eko urriaren 1etik 2022ko ekainaren 30era bitartean egindakoak.

– B eranskina. Udako ikastaroak: 2022ko ekainaren 1etik 2022ko irailaren 30era bitartean egindakoak.

8. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, akatsak konponu ditzaten. Zerrendak ezagutzera emateko epeak A eta B eranskinetan jasotzen dira.

Emandako epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzi dutela joko da, eta prozedura artxibatatu egingo da, 39/2015 Legearen 68.1 artikulua adierazita-koaren arabera ebazpena egin ondoren.

IV. PROZEDURA

9. artikulua. Jarduerak jakinaraztea eta akatsak zuzentzea.

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 45.1 b) artikuluan xedatzen duenez, oinarri hauetan jasotako prozedurazko egintzak Donostia-ko Udaleko Euskara Zerbitzuaren webgunean (<http://www.donostiaeuskaraz.eus>) argitaratzea nahikoa izango da, eta ez dago eskatzaileei banan-banan jakinarazi beharrik. Aipatu argitalpenean egintza bakoitzari dagozkion epeak zehaztuko dira, adieraziz epearen zenbaketa hasiera data.

2. Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen proposamena Donostia-ko Udaleko Euskara Zerbitzuaren webgune bidez egingo da, eta egoki irizitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie. Jakinarazpenaren eta alegazioetarako datak A eta B eranskinetan jasotzen dira.

3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpen proposamena egingo da; era berean, kontuan hartu behar da, diru kopurua dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko denez, behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egin daitezkeela.

10. artikulua. Ebazpena.

1. Behin betiko ebazpen proposamena Tokiko Gobernu Bazarren onespenera jarriko da, egin ditzakeen eskuordetzen kalterik gabe, eta prozedura honek ebatziko du ziodun ebazpen bidez, eta jardunbidean erabakiaren funtsak adieraziko dira, oinarrietan ezarritakoarekin bat.

2. Ebazpenean berriaz adieraziko dira eskabideak eskatuta dirulaguntza jasoko duten pertsonen zerrenda eta dirulaguntzaren zenbatekoa, halaber, jasoko dira ezetsitako eskabideak eta funtsatutako ezepenezkoak.

3. Behin betiko ebazpenak eta zerrendak ezagutzera emateko datak A eta B eranskinetan jasotzen dira.

4. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

5. Ebazpenak balio gabetzeko arrazoiak administrazio prozeduraren legerian jasotakoak izango dira. Arrazoietako bat gertatuz gero, dirulaguntza emakida ebatzi duen organoak ofizioz berraztertze erabakia hartuko du, edota, hala badagokio, kaltegarritasunezko adierazpena egin ondoren aurkatze erabakia hartuko du administrazio prozedurak xedatutakoarekin bat. Erabakiak ez dira ofizioz berraztertuko itzulketarako arrazoiak egoenez gero.

Los plazos para presentar las solicitudes y la documentación a presentar se realizará de acuerdo con lo establecido en los siguientes anexos:

– Anexo A. Cursos de invierno: realizados entre el 1 de octubre de 2021 hasta el 30 de junio de 2022.

– Anexo B. Cursos de verano: realizados entre el 1 de junio de 2022 hasta el 30 de septiembre del 2022.

Artículo 8. Subsanación de errores.

Cuando la documentación preceptiva adolezca de algún error o sea incompleta, se otorgará a las personas interesadas un plazo de diez días, contando a partir del día siguiente al de la publicación, para subsanar los defectos detectados. Los plazos para dar a conocer las listas se recogen en los anexos A y B.

Transcurrido el plazo concedido sin que se subsanen los defectos detectados, se les tendrá por desistidos de su petición, archivándose el procedimiento, previa resolución que será dictada en los términos del artículo 68.1 de la Ley 39/2015.

IV. PROCEDIMIENTO

Artículo 9. Notificación de actuaciones y subsanación de defectos.

1. De conformidad con lo previsto en el art. 45.1 b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas la publicación en la página web del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián (<http://www.donostiaeuskaraz.eus>) de los actos procedimentales previstos en el presente Bases sustituirá a la notificación individualizada de los mismos. En dicha publicación se hará referencia a la fecha de inicio del cómputo de los plazos que correspondan.

2. Se realizará propuesta de resolución provisional a las personas interesadas, a través de la página web del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, concediéndoles un plazo de diez días para la presentación de alegaciones. Las fechas de notificación y de alegaciones se recogen en los anexos A y B.

3. Examinadas las alegaciones en su caso presentadas, se formulará propuesta de resolución definitiva que deberá expresar la relación de personas solicitantes para las que se propone la concesión de la subvención y su cuantía. La subvención se concederá entre todos los que hayan cumplido las condiciones; por lo tanto, en caso de que se aprueben las alegaciones presentadas ante la resolución de las listas provisionales, puede haber cambios en las cantidades de las listas definitivas.

Artículo 10. Resolución.

1. La propuesta de resolución definitiva se elevará a la Junta de Gobierno Local, sin perjuicio de las delegaciones que ésta realice, quien resolverá el procedimiento mediante resolución motivada de conformidad con lo que dispongan las bases, debiendo quedar acreditados en el procedimiento los fundamentos de su resolución.

2. La resolución deberá expresar la relación de personas solicitantes a las que se concede la subvención y su cuantía, así como las solicitudes desestimadas y los motivos en que se fundamenta.

3. Las fechas para dar a conocer la resolución y las listas definitivas se recogen en los anexos A y B.

4. En la resolución se hará constar la cuantía de la subvención y la forma de pago.

5. Serán causas de nulidad o anulabilidad de las resoluciones las previstas en la legislación de procedimiento administrativo. Cuando concurra alguna de aquellas causas, el órgano que haya concedido la subvención procederá a su revisión de oficio, o en su caso la declaración de lesividad y ulterior impugnación de conformidad con lo dispuesto en la normativa sobre procedimiento administrativo. No procederá la revisión de oficio de las resoluciones cuando concurran causas de reintegro.

6. Behin betiko ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Ebazpenaren aurka birjarpen errekurtsua jarri ahal izango da Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, eta horretarako hilabeteko epea izango da. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke bi hilabeteko epean, txandaz egokitzen den Donostiako Administrazioarekiko Auzien epaitegian.

11. artikulua. Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna.

Oinarrien arabera emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira soilik HABE erakundeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako enpresa pribatuek ematen dituzten dirulaguntzekin, betiere gainfinantzaketa gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik gertatuko balitz, dagozkion kenketak egingo lirateke, aldea ez ordainduz edo dagozkion kopurua itzultzeko eskatuz.

Donostian lan egin baina beste udalerrri batean erroldatuta daudenek, erroldatuta dagoen Udalaren egiaztagiria ekarri behar dute helburu bererako dirulaguntzarik ez dutela jasotzen egiaztatuz, baldin eta ez badiote ematen Donostiako Udalarri baimena datu hauek egiaztatzeko.

12. artikulua. Dirulaguntzen finantzaketa.

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzetarako, 2022ko aurrekontuko 291.249,00 €ko kopurua erabiliko da.

Aipatzen den kopurua aurreikuspenezko estimazioa da, hori dela eta, ohartarazten da laguntzen emakida ez dela egingo Donostiako Udaleko aurrekontuaren luzapena edo 2022. urteko aurrekontua onetsi aurretik eta bertan adierazita jasotzen den arte badagoela krediturik dirulaguntza hauek emateko.

Bertan jasotako kreditua hasiera batean aurreikusitakoa baino handiagoa izanez gero, deialdiari aplikatzea edo ez erabaki ahal izango da aurrez dagoen gastu espedientea izapidetuta, ebazpena eman aurretik beste deialdirik egin behar izan gabe.

Aurreikusitako diru kopurua honela banatuko da:

– Diru kopuru honen % 94a, hau da, 273.774,00 euroko kopurua, neguko ikastaroetan parte hartu duten herritarrak laguntzeko erabiliko da.

– Gainerako % 6a, hau da, 17.475,00 euroko kopurua, uda-ko ikastaroetan parte hartu dutenen artean banatuko da.

Diru kopuru hauek aldi bakoitzean laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasle guztien artean banatuko dira. Dirulaguntza gainditutako azpimailen arabera emango da, baina gehienez ikastaroaren matrikularen % 55 lagunduko da.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoa gehitu ahal izango da, baldin eta Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren aurrekontu-etakoz izakinak agortu ez badira, eskumena duen organoaren erabaki bidez.

13. artikulua. Dirulaguntza zuzitzea eta ordaintzea.

1. Dirulaguntzen behin betiko ebazpena emanda, dirulaguntza ordaintzeta bakarrez egingo da banku transferentzia bidez. Ordaintzeta epeak A eta B eranskinetan jasotzen dira.

2. Dirulaguntzak emateko oinarri izango dira eskabidea aurkeztuta baldintza guztiak betetzen dituztenak eta ikasturte bukaeran Zentro homologatuek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari luzatzen dioten urte bukaerako ebaluazioan jasotakoa, zeinetan jasotzen den ikasle bakoitzari dagozkion emaitzak, asistentzia datuak eta matrikula ordaindu izana.

14. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

– Euskara Zerbitzuan dirulaguntza emateak eskatzen dituen baldintza eta betebeharrak interesdunak betetzen dituela egiaztatzea.

6. La resolución definitiva pone fin a la vía administrativa, y se podrá interponer recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián en el plazo de un mes, o impugnarse directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián que por turno corresponda.

Artículo 11. Concurrencia con otras ayudas.

Las ayudas concedidas de acuerdo con las bases, serán compatibles únicamente con las ayudas concedidas por HABE, por la Diputación Foral de Gipuzkoa y por cualquier empresa privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Si hubiera sobrefinanciación se realizarán las reducciones correspondientes, no abonando la diferencia o solicitando la devolución de la cantidad concedida.

Las personas no empadronadas que estén trabajando en San Sebastián deberán presentar certificación de no recibir subvención para el mismo fin por parte del ayuntamiento donde está empadronada si no autoriza al Ayuntamiento de San Sebastián a realizar estas actuaciones de comprobación.

Artículo 12. Financiación de las ayudas.

Para las ayudas contempladas en esta convocatoria se destinará la cantidad 291.249,00 € del presupuesto del año 2022.

La cuantía indicada tiene carácter estimado por lo que se hace constar que no se realizará la concesión de las ayudas hasta que no se apruebe la prórroga o el presupuesto del Ayuntamiento de San Sebastián correspondiente al ejercicio de 2022 y se constate la existencia en el mismo de crédito para la concesión de las subvenciones.

En el supuesto de que la cuantía del crédito presupuestario fuera superior a la cuantía inicialmente estimada, podrá decidirse su aplicación o no a la convocatoria previa tramitación del correspondiente expediente de gasto antes de la resolución sin necesidad de nueva convocatoria.

La cantidad designada se distribuirá de la siguiente manera:

– El 94 % de la mencionada cantidad, es decir, 273.774,00 euros, se destinarán para las ayudas de los/as ciudadanos/as que han tomado parte en los cursos de invierno.

– El 6 % restante, es decir, 17.475,00 euros, se destinarán para ayudar a los/as ciudadanos/as que han tomado parte en los cursos de verano.

La cantidad citada se repartirá en cada período entre todas las personas solicitantes que hayan cumplido todos los requisitos. La ayuda se concederá de acuerdo con los subniveles superados, pero no superará el 55 % del coste de la matrícula.

El citado importe global podrá ser modificado en función de las disponibilidades presupuestarias del Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, mediante acuerdo del órgano competente.

Artículo 13. Justificación y abono de la subvención.

1. Una vez aprobada la resolución definitiva, el abono de las subvenciones se efectuará en un solo pago, mediante transferencia bancaria. Las fechas de abono se recogen en los anexos A y B.

2. La concesión de la subvención se basará en el cumplimiento de todos los requisitos requeridos por parte de las personas solicitantes una vez presentada la solicitud, y en la evaluación de fin de curso que los centros homologados facilitan al Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián, en el que se incluyen, de manera individualizada, los resultados, datos de asistencia y la confirmación del abono de la matrícula de sus alumnos/as.

Artículo 14. Obligaciones de las personas beneficiarias.

– Justificar ante el Servicio de Euskera el cumplimiento de los requisitos y condiciones que determinan la concesión de la subvención.

– Dirulaguntza ematen duen Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak egin beharreko egiaztatze-lanak onartzea eta laguntza eskaintzea, eta era berean, kontrol-organoek egin beharreko beste egiaztatze eta finantzen kontrolerako jardueretan ere laguntza; aipatu jarduerak egiteko eskatutako informazio guztia emango da.

– Xede berbererako jasotako dirulaguntzak organo emaleari jakinaraztea, halakorik jaso bada.

– Zerga ordainkizunetan egunean dagoela egiaztatzea (Foru Ogasunean eta Udal Zerga biltegian) eta Gizarte Segurantzaren aurrean, dirulaguntzaren emakida unean zein ordainketa unean

V. ARGITARA EMATEA

15. artikulua.

a) Emandako dirulaguntzak www.donostiaeuskaraz.eus webgunean argitaratuko dira, adierazita dirulaguntzaren zenbatekoa, xedea eta onuradunak.

Era berean, emandako dirulaguntzen, onuradunen eta zenbatekoen zerrrenda HABEra (Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea) bidaliko da bertan duten euskara ikasten ari diren ikasleen datu basean dirulaguntzaren datua jaso ahal izateko.

VI. ERREKURTSOAK

16. artikulua.

Honako oinarri hauen aurka administrazioarekiko errekurtsua aurkezteko epean, Donostiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean edo bestela, zuzenean aurkatu daitezke bi hilabeteko epean, txandaz egokitzen den Donostiako Administrazioarekiko Auzien epaitegian. Bietarako epea oinarri hauek argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

2021-2022 ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarrien A eranskina.

A ERANSKINA: NEGUKO IKASTAROAK

1. Eskabideak aurkezteko epeak eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.1. Eskabideak aurkezteko epeak:

– Orokorrean, ikastaroa hasi eta hilabeteko epean.

– Autoikaskuntza eta Barnetegiak: Ikastaroa hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Autoikaskuntza eta Barnetegietako Ikastaro hauengatik eskabideak, ikastaroaren hasiera data kontuan hartuta, neguko edo udako deialdian sartuko dira.

1.2. Eskabide orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

– Eskatzailearen NANaren fotokopia.

Erroldatu gabekoek, aurrean zehaztutakoez gain:

– Lan egiten duen Donostiako enpresa edo entitatearen agiria.

– Erroldatuta dagoen Udaleko egiaztagiria, non esaten den ez duela helburu bererako dirulaguntzarik jasotzen.

Hala ere, hala nahi izanez gero, eskatzaileak eskabidearen bidez baimena eman diezaioke Euskara Zerbitzuari erroldatuta dagoen Udalarri egiaztagiria eskatzeko, non esaten den ez duela helburu bererako dirulaguntzarik jasotzen.

– Someterse a las actuaciones de comprobación y control a efectuar por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de San Sebastián en relación con la subvención concedida; se facilitará cuanta información solicitada para la realización de las actuaciones mencionadas.

– Comunicar al Servicio de Euskera la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad.

– Acreditar que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias (Hacienda Foral y Recaudación municipal) y frente a la Seguridad Social tanto en el momento de la concesión como en el del abono de la ayuda.

V. PUBLICIDAD

Artículo 15.

La relación de subvenciones concedidas serán publicadas en la web www.donostiaeuskaraz.eus, con indicación de su importe, su objetivo o finalidad y los/as beneficiarios/as.

Además, la relación de subvenciones concedidas, las personas beneficiarias y sus cuantías se enviarán a HABE (Instituto para la Euskaldunización y Alfabetización de Adultos), para que estas ayudas se recojan en la base de datos correspondiente a los/as alumnos/as de euskera que cuenta esta entidad.

VI. RECURSOS

Artículo 16.

Contra las presentes bases podrá interponerse, recurso de reposición, en el plazo de un mes, ante la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de San Sebastián, o impugnarlas directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián que por turno corresponda, en el plazo de dos meses, contando los plazos en ambos casos a partir del día siguiente a la publicación de las presentes bases.

Anexo A de las bases reguladoras del procedimiento para otorgar subvenciones públicas por el aprendizaje del euskera durante el curso 2021-2022.

ANEXO A: CURSOS DE INVIERNO

1. Plazos para presentar las solicitudes y documentación a presentar junto a la solicitud.

1.1. Plazos para presentar las solicitudes:

– En general, en el plazo de un mes después de comenzado el curso.

– Cursos de autoaprendizaje e internados: en el plazo de un mes después de iniciado el curso.

Las solicitudes de los cursos de autoaprendizaje e internados entrarán en la convocatoria de invierno o verano dependiendo de la fecha de inicio del curso.

1.2. Documentación a presentar junto a la solicitud.

– Fotocopia del DNI.

Personas no empadronadas, además de lo expuesto:

– El certificado de la empresa o entidad de Donostia donde trabaja.

– Certificación de no recibir subvención alguna para el mismo fin por parte del Ayuntamiento donde está empadronado/a.

Si así lo desea, por medio del impreso, el/la solicitante puede autorizar al Servicio de Euskera a solicitar al Ayuntamiento donde está empadronado/a la certificación de no recibir subvención alguna para el mismo fin.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua araber, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko. Horregatik, Donostiako Udalak inprimaki bakoitzean adieraziko du dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izango dituela, interesdunak horren aurka egiten ez badu behintzat. Aurka eginez gero, interesdunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

2. Akatsak zuzentzea.

2.1. Zerrendak ezagutzera emateko data: 2022ko ekainaren 3a.

Aurkeztutako dokumentazioaren akatsak zuzendu edota dokumentazioa osatzeko epea: 2022ko ekainaren 6tik 17ra (biak barne).

3. Izapidetza eta proposamena.

Behin-behineko ebazpen proposamenaren jakinarazpen data eta alegazioetarako epea:

3.1. Behin-behineko ebazpen proposamenaren data: 2022ko uztailaren 14a.

3.2. Behin-behineko ebazpen proposamenari alegazioak egiteko epea: 2022ko uztailaren 15etik 29ra (biak barne).

4. Ebazpena.

Dirulaguntzen behin betiko ebazpena eta zerrendak ezagutzera emateko data: 2022ko irailaren 6a.

5. Dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzaren ordainketa data: 2022ko iraila.

2021-2022ko ikasturtean euskara ikasteko dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarrien B eranskina.

B ERANSKINA: UDAKO IKASTAROAK

1. Eskabideak aurkezteko epeak eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.1. Eskabideak aurkezteko epeak:

– Ikastaroa hasi eta hilabetearen barruan.

– Iraileko era guztietako ikastaroetako eskabideak aurkezteko epea: azken eguna irailak 30.

– Autoikaskuntza eta Barnetegiak. Ikastaroa hasi eta hilabetearen barruan.

1.2. Eskabide orriarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.

– Eskatzailearen NANaren fotokopia, neguan eskaera egin ez bada, eskabide orriarekin batera.

Erroldatu gabekoek, aurrean zehaztutako gain:

– Lan egiten duen Donostiako enpresa edo entitatearen agiria.

– Erroldatuta dagoen Udaleko egiaztagiria, non esaten den duela helburu bererako dirulaguntzarik jasotzen.

Hala ere, hala nahi izanez gero, eskatzaileak eskabidearen bidez baimena eman diezaiotke Euskara Zerbitzuari edota erroldatuta dagoen Udalari egiaztagiria eskatzeko, non esaten den duela helburu bererako dirulaguntzarik jasotzen.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua araber, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egindako dokumentuak ez aurkezteko. Horregatik, Donostiako Udalak inprimaki bakoitzean adieraziko du dokumentuak kontsultatu edo eskatu ahal izango dituela, interesdu-

Según establece el art. 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP, los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Por ello, el Ayuntamiento de San Sebastián indicará en cada formulario qué documentos podrá consultar o recabar salvo que la persona interesada se oponiera a ello. En caso de oponerse, el interesado deberá presentar la documentación exigida.

2. Subsanación de errores.

2.1. Fecha para la publicación de las listas: 3 de junio de 2022.

Plazo para la subsanación de errores que pueda adolecer la documentación y/o para completar la misma: del 6 al 17 de junio de 2022 (ambos inclusive).

3. Instrucción y propuesta.

Notificación de la propuesta de resolución provisional y plazo de alegaciones:

3.1. Fecha de publicación de la propuesta de resolución provisional: 14 de julio de 2022.

3.2. Plazo para la presentación de alegaciones a la propuesta de resolución provisional: del 15 de julio al 29 de julio de 2022 (ambos inclusive).

4. Resolución.

Fecha de publicación de la resolución definitiva de las subvenciones: 6 de septiembre de 2022.

5. Abono de la subvención.

Fecha de abono de la subvención: septiembre de 2022.

Anexo B de las bases reguladoras del procedimiento para otorgar subvenciones públicas por el aprendizaje del euskera durante el curso 2021-2022.

ANEXO B: CURSOS DE VERANO

1. Plazos para presentar las solicitudes y documentación a presentar junto a la solicitud.

1.1. Plazos para presentar las solicitudes:

– Un mes posterior a la fecha de inicio del curso.

– Plazo para las solicitudes correspondientes a todos los tipos de cursos de septiembre: último día 30 de septiembre.

– Cursos de autoaprendizaje e internados. Un mes desde el comienzo del curso.

1.2. Documentación a presentar junto a la solicitud.

– Fotocopia del DNI, en caso de que no se haya solicitado la ayuda durante el invierno, junto con la hoja de solicitud.

Personas no empadronadas, además de lo expuesto:

– El certificado de la empresa o entidad de Donostia donde trabaja.

– Certificación de no recibir subvención alguna para el mismo fin por parte del Ayuntamiento donde está empadronado/a.

Si así lo desea, por medio del impreso, el/la solicitante puede autorizar al Servicio de Euskera a solicitar al Ayuntamiento donde está empadronado/a la certificación de no recibir subvención alguna para el mismo fin.

Según establece el art. 28.2 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP, los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. Por ello, el Ayuntamiento de San Sebastián indicará en cada formulario qué documentos podrá

nak horren aurka egiten ez badu behintzat. Aurka eginez gero, interesdunak eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

2. *Akatsak zuzentzea.*

2.1. Zerrendak ezagutzera emateko data: 2022ko urriaren 13a.

Aurkeztutako dokumentazioaren akatsak zuzendu edota dokumentazioa osatzeko epea: 2022ko urriaren 14tik 27ra (biak barne).

3. *Izapidetzea eta proposamena.*

Behin-behineko ebazpen proposamenaren jakinarazpen data eta alegazioetarako epea:

3.1. Behin-behineko ebazpen proposamenaren data: 2022ko azaroaren 3a.

3.2. Behin-behineko ebazpen proposamenari alegazioak egiteko epea: 2022ko azaroaren 4tik 17ra (biak barne).

4. *Ebazpena.*

Dirulaguntzen behin betiko ebazpena eta zerrendak ezagutzera emateko data: 2022ko abenduaren 14a.

5. *Dirulaguntzen ordainketa.*

Dirulaguntzaren ordainketa data: 2022ko abendua.

Donostia, 2021eko abuztuaren 31.—Eduarne Otamendi Garmendia, Euskara Zerbitzuaren burua. (5767)

consultar o recabar salvo que la persona interesada se opusiera a ello. En caso de oponerse, el interesado deberá presentar la documentación exigida.

2. *Subsanación de errores.*

2.1. Fecha para la publicación de las listas: 13 de octubre de 2022.

Plazo para la subsanación de errores que pueda adolecer la documentación y/o para completar la misma: del 14 al 27 de octubre de 2022 (ambos inclusive).

3. *Instrucción y propuesta.*

Notificación de la propuesta de resolución provisional y plazo de alegaciones:

3.1. Fecha de la notificación de la propuesta de resolución provisional: 3 de noviembre de 2022.

3.2. Plazo para la presentación de alegaciones a la propuesta de resolución provisional: del 4 al 17 de noviembre de 2022 (ambos inclusive).

4. *Resolución.*

Fecha de publicación de la resolución definitiva de las subvenciones: 14 de diciembre de 2022.

5. *Abono de la subvención.*

Fecha de abono de la subvención: diciembre de 2022.

San Sebastián, a 31 de agosto de 2021.—La jefa del Servicio de Euskera, Eduarne Otamendi Garmendia. (5767)